

“Formazio politikoa berriro ‘modan’ dago, baina bakoitzak berea”

Unai Vázquez eta Gorka Zoziaia

Oinharri Eskolako kideak

Oinharri Eskolak uztailaren hondarrean zortzi eguneko barnetegia antolatu zuen herri mugimenduetako hainbat lagunentzat Gasteizko Errekaleor auzo askean. Ohiko formakuntza ereduari koska bat estutu eta parte-hartzaileak astindurik ageri dira. Unai Vázquez eta Gorka Zoziairekin mintzatu gara.

 RUBEN SÁNCHEZ BAKAIKOA

Eskolaren abiapuntuarekin hasiko gara. Brasilgo MST Lurrik Gabeko Mugimenduaren Florestan Fernandes eskolak badu zer ikusia, ezta?

Unai Vázquez: Eskola hori erreferente bat da, bai, baina ez bakarra. Egia da Oinharri Eskolaren proiektuarekin hasitako batzuk handik pasa garela, eta metodoarekin maitemindu, eta beraz eragin handia izan duela. Aurretik ere, formakuntzarekin harreman estua izan dugu gehienok: herri mugimenduetan, munduko beste eskola batzuetan edo Euskal Herriko Herri Unibertsitatean, kasu.

Dena den, Florestaneko esperientzia izugarria izan zen. Nik Latinoamerikako herri mugimenduei zuzendutako nazioarteko ikastaroan parte hartu nuen bi hilabetez eta sentsazio asko, irakaspen eta kontraesan pila bat sortu zitzaizkidan. Txikitik udalekuetara joateak eragiten duen sentsazio eta poz berdintsua sorrazten dizu.

Zenbat lagun ari zarete proiektuan?

U. Vázquez: 20ren bat, noski inplikazio maila ezberdinetan, batzuk buru-belarri, Oinharri militatzea lehentasunez hartuta eta beste batzuk beste militantzia batzuekin uztartuta. Liberatuak izateko gaitasunik gabe, baina ilusio handiz ari gara; zerbait ezberdina, beharrezkoa eta osagarria eraikitzearen sentsazioarekin.

Eskolaren hainbat aurkezpen egin duzue, nola joan dira?

U. Vázquez: Orokorrean, proiektua interesgarria dela uste da, baina nik uste dut gabezia bat sumatzen dela: bakoitzak bere zilborrari begiratzen dio eta diogu. Normala da, ezagutzen dugunetik analizatzen dugu dena, kanpotik datozen proposamenak ere bai. Gure helburua bikoitza da, alde batetik, formakuntza politiko minimoa ematea, herri mugimendu guztientzat bera; eta bestetik, elkarbizitzaz herri mugimenduen arte-

ko elkar ezagutza sustatzea, gure leloak esaten duen bezala “ezagutuz aldatzea”. Eragileei, proiektua interesgarritzat jotzen badute ere, kostatzen zaie ikustea zertan garen ezberdinak beraiengandik edo beste erakundeetako formakuntza tresnetatik, ikastaroan parte hartu arte. Orduan, metodoan trebatzean, esperimentatzean, proiektua bera ulerrarazten da eta ikuspegia aldatzen da.

Bi barnetegi egin dituzue. Zer balorazio egiten duzue?

U. Vázquez: Lehen barnetegia, kanpoko jendea gonbidatu bagenuen ere, barnera begira izan zen bereziki, guk geuk metodoa ezagutzeko eta trebatzeko, hainbeste teorizatu genuena eztabaidatu eta praktikan ipintzeko. Florestan eskolatik pasa ez zirenek beren gorputzetan senti zezaten ere nahi genuen. Ikaragarria izan zen bigarren egunerako zer konexio genuen, kohesioa ezberdintasunean;



RUBEN SÁNCHEZ BAKAIOA

adostutako koordinazio eta diziiplina militantearekin kolektiboan zer gauza zoragarriak lortu ahal diren. Ikastaroen helburua ez da “eskolak” jasotzea, baizik eta elkar ezagutza kolektiboa, eta horretarako lau ikasketa eremu ditugu: komunitateko lanak, teoria-praktika politikoa, kultur sorkuntza eta antolakuntza. Batak ez du besteak baino garrantzi handiagoa, denak dira ezinbesteko, batzuk ez badu funtzionatzen errotarriak ez du biratzen, talka egiten du. Talka horren bidez ikasten-irakasten dugu, kontraesanak sorraraziz. Hori tresna na-

gusi izanda, intentsitate handia izateak laguntzen du kontraesanak areagotzen.

Bigarren barnetegian kanpora zabaldu zarete.

U. Vázquez: Bai, eta horrek ekarri du hainbat talka: militantzia ereduak (“zaharrrak/gazteak”), maskulinitateak, barneratuta dugun denbora “librearen” kontzepzio burgesa... Hamaika kontraesan sortu dira, eta identifikatuz eta kudeatuz, ikasten joan gara. Noski, guri ere sortu zaizkigu kontraesanak, eta haietatik ikasten dugu.

Ikastaroa esperientzia bat da, egoera emozional guztietatik pasatzen da, intentsionalitate bat dago horretan guztian. Bukaerako sentsazioak, orain arte behintzat, oso onak izan dira, pena ematen du kideak agurtzeak, kolektiboan bizitzeari uzteak.

“

Gorputza eta komunitatea, kultura eta antolaketa eduki klasikoekin nahasi eta espazio berri bat eskaintzera dator Oinharri Eskola”

Gorka Zozia

Gorka Zozia: Unai aipatu duen azken hori oso agerikoa da, barnetegiak komunitatea sortzen du. Norbanako gisa jardutera ohituta gauden munduan, bat-batean apurtu egiten da. Batzuk berehala, besteak hirugarren egunerako, baina norbanako isolatu burujabe-autosufiziente eraikuntza sendoak apurtzen dira, trinkotasunak dakarren intentsitateak bultzatuta hein handi batean. Komunitatean zertzen gara, elkarren premia dugu gure behar material eta emozionalak asetzeko eta behar hori barnetegian agertzen da.

Esperientzia bietan hori oso agerikoa izan da, eta hain zuzen, indibidualtasunaren apurketa gakoa da normalean “formazio” gisa etiketatzen den eduki jakinen ikasketa sakona eta esanguratsua emateko. Izan ere, ez da ohikoa ikasteko –gure burua aldatzeko– prest egotea. Adibidez, gai baten inguruko hitzaldi batean parte hartzen dugunean, maiz aldez aurretik badakigu zer jarrera izango dugun, zein kritika eta ekarpen egingo dugun amaierako hitz-hartzeen atalean. Barnetegiak egoak apurtu, aurrez eza-gunak ditugun eduki horiei beste non-baitetik begiratu eta elkarrengandik ikasteko aukera zabaltzen du. Hori dela eta, ez dugu bereizten “formakuntza” eta “elkarbizitza”: barnetegiko une guztiek dute izaera pedagogikoa, aurrez pentsatuak dira eta intentsionalitate bat dute.



OINHARRI ESKOLAK UTZIA

Nola baloratzen duzue formakuntza politikoaren gaineko egoera Euskal Herrian?

G. Zozaia: Aberatsa da formazio politikoaren mapa. Badaude 40 urtetik gorako egitasmoak eta jaio berriak direnak, edo egitasmo lokalak eta nazio mailakoak. Badira formazioa arrazoiaren eta eduki klasi-koetan oinarritzen dutenak, baita gorputza formazioan integratzen dutenak ere, edo dinamika parte-hartzaileetan edukietan baino arreta handiagoa jartzen dutenak. Eta jakina, badira formazio politiko sakonagoak eta azalekoagoak. Aniztasuna da nagusi, baina oro har, eragile politiko, sozial eta sindikalek beren jarduera politikoa elikatzeke sortzen dituzten egitasmoak dira, eragile anizteta militarren zatitza zabaltzen diren esperientziak barik.

Oinharri Eskolak esperientziok aintzat hartzen ditu, berauetatik edaten du eta ez du ordezkatzeko asmorik. Alta, Hegoalde Globaletik heldu diren formazio esperientziekin elikatu nahi du Euskal Herriko formazio politikoaren mapa. Hala, gorputza eta komunitatea, kultura eta antolaketa, eduki klasikoekin nahasi eta espazio berri bat eskaintzera dator Oinharri Eskola, hainbat eragiletatik eta militantzia eredu aniztetatik heldu diren parte-hartzaileak elkartuz, elkarbizitzan sortzen diren kontraesan eta elkarrekintzetatik ikasteko.

Gainera, gure ustez, ikasketa prozesuak aldaketa ekarri behar du. Ez da prozesu azalekoa eta erraza, esfortzua eskatzen du, eta garaioan esfortzua ez

“

Sentsazioa dut 'Herri Fronte Judutarraren' eta 'Judeako Herri Frontearen' garaian gaudela. Gure lana ez da Judeako Fronte Batua eraikitzea”

Unai Vázquez

dago batere modan, edo militanteok ez dugu esfortzu gehigarrietarako ez astirik ez gogorik. Hori dela eta, bada joera bat formazio politikoa arintzeko eta ohiko kontsumo formatuetara egokitzeke, nolabait edozein unetan formatzea errazteko. Lanerako bidean, otorduetan... mugikorraren bidez kontsumitu daitezkeen pilulak, funtsean. Halako formatuak ez dira pertsonetan aldaketa esanguratsuak eragiteko gai.

Zailtasunei tiraka segiz...

G. Zozaia: Lehen esan bezala, ez da erraza oporralditik egun batzuk ikasteko “sarkifikatzea” gaur egun dugun aisiaren ulermenetik. Badirudi ez badugu urrutira bidaiatzen ez dugula oporrik. Are zailagoa da lan prekarioetan arituta oporraldiak

oso laburrak direnean. Honez gain, zailtasun inportante bat da azken hamarkadan areagotu den eragileen atomizazioa, baita elkarrekiko ditugun mesfidantzak ere; zaila da norberaren eragiletik (parrokia-*tik*) kanpo ikasteari ateak zabaltzea. Baina zailtasun horiek berak aukera gisa irudikatzen ditugu, adostasunak eraikitzeke. Izan ere, elkar topatzeko espazioak urriak dira eta bada gogorik. Bestelako formazio politikoak ezagutzeko jakin-mina ere badago, baita oporraldia beste era batera gozatzeko ere, adibidez turismoaz dugun diskurtsoarekin koherenteago.

U. Vázquez: Aspaldi formakuntza politikoari ez zaio dagokion garrantzirik eman. Formakuntzak zentrala, etengabea eta iraunkorra izan behar du edozein ezkerreko herri mugimendutan. Dialektikaren legeek ohartarazten digute dena etengabeko aldaketan dagoela, formakuntza iraunkorrik gabe gelditu gertatzen gara, analisirako eta beraz aldatzekarako gaitasuna galtzen dugu.

Orain, berriz, ematen du “modan” dagoela formakuntza politikoa berriro, baina bakoitzak berea eta beretzat egiten du. Badut sentsazioa 'Herri Fronte Judutarra' eta 'Judeako Herri Frontearen' garaian gaudela. Friki samarra naiz eta *The life of Brian* filma asko gustatzen zait. Ez gatoz hori aldatzera, gure lana ez da Judeako Fronte Batua eraikitzea, baina elkar eza-*gutzeak*, bestearen borrokak, analisiak, bizipenak eza-*gutzeak*, elkarbizitzak, beti laguntzen du norabidea aurkitzen. ●